III

BILBOKO HIRUHILEKO KOIUNTURA TXOSTENA 2026

Bilbao Observatorio

LABURPENA

Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) urrian egindako aurreikuspenen arabera, munduko ekonomia % 3,1 haziko da 2026an. Aurreikuspen hori ez da aldatu aurrekoekin alderatuta, ziurgabetasunez betetako nazioarteko egoera sozioekonomikoan. Tentsio geopolitikoek, inflazioaren goranzko joerak eta nazioarteko merkataritza-gatazkek munduko ekonomiaren bilakaera baldintzatzen jarraitzen dute (eta ez da baretzeko zantzurik erakusten).

2026rako hazkunde-aurreikuspenari eutsi zaio

Zehazki, NDFren arabera, *"munduko ekonomia erresilientzia erakusten ari da beste behin ere, baina modu desberdinean, eta epe laburrera begira doikuntzak egiteko aukerak gero eta mugatuagoak dira"*. 2026rako aurreikuspen orokorra apirilekoaren parekoa da, energiaren eta elikagaien prezioen igoeraren ondorioz inflazioa handitu den arren. Horrekin lotuta, aurreikuspen berrien arabera, 2026rako eta 2027rako hazkunde ekonomikoa % 3,1ekoa eta % 3,4koa izango da, eta eutsi egingo zaio apirilean 2026rako egindako doikuntzari. Hala ere, ez dira iristen urte hasierako (urtarrileko) aurreikuspenetara, eta 2025. urte osorako erregistratutako batez besteko hazkundea (+% 3,5) baino igoera-maila txikiagoak izango dituzte.

Aurreikuspenen arabera, munduko hazkundea % 3,1 eta % 3,4koa izango da 2026 eta 2027rako

Ekonomia nagusiei dagokienez, NDFk urrian egindako 2026rako aurreikuspenen zuzenketak hiru hamarreneko hobekuntza ekarri du AEBrentzat (+% 2,1). Eurogunean, berriz, aurreikuspena bere horretan mantendu da (+% 1,1), herrialde bakoitzaren egoeraren araberako zuzenketak egin ondoren. Hala, Alemaniarako (+% 1,3), Italiarako (+% 0,8) eta Espainiarako (+% 2,5) hazkunde-aurreikuspenak gorantz zuzendu dira; Frantziarakoak, aldiz, beherantz (+% 0,4).

Era berean, Eusko Jaurlaritzaren aurreikuspenek hiru hamarrenetan hobetu dute Euskadiko ekonomiaren hazkundea 2026. urte osorako (% 2,2), eta bi hamarrenetan 2027. urterako (% 1,9). Horrek azken urteetako EAEko ekonomiaren dinamismo nabarmenaren ibilbidea indartzen du. Aurreikuspen horietan, erabakigarria da barne-eskariaren portaera ona, eta, bereziki, familia-kontsumoarena, euskal ekonomiaren hazkunde jarraituaren bultzatzailea baita.

Euskadiko ekonomia % 2,2 haziko da 2026an

Ildo horretan, eta nazioarteko ziurgabetasunak bere horretan jarraitzen duen arren, hirugarren hiruhilekora arte eskura dauden datuek 2026. urtearen amaiera positiboa izango dela aurrez ikusten dute. Zehazki, Bilboko lan-merkatuaren adierazleek egungo egoera ona erakusten dute. Gizarte Segurantzako afiliazioa (iraila) 200.988 pertsonakoa izan da (+% 1,9koa urte arteko tasan), eta urtebete lehenago baino 3.794 afiliatu gehiago izan dira.

Bilboren kasuan, afiliazioa (irailean), 201.000 pertsonako mugatik gertu geratu da

Bestalde, hirugarren hiruhilekoan Bilbon bizi diren pertsonek 32.674 lan-kontratu berri formalizatu dituzte. Horrek urte arteko igoera dakar (+ 3,0), baina ekaineko datuarekin alderatuta, beherakada izan da (-% 0,7). Urteko balantzeak (urtarriletik irailera) urte arteko % 7,1eko hobekuntza nabarmena berresten du (+6.086 kontratu), eta urtearen hasieratik guztira 92.102 lan-kontratu berri formalizatu dira. Itxiera partzial horrek 2026rako emaitza ona aurrez ikusten du.

... eta egoiliarren 32.674 lan-kontratu berri

Erregistratutako langabeziari dagokionez, Bilbon 21.525 langabe zeuden erregistratuta (iraila), hau da, urte arteko % 2,9ko igoera izan da (598 langabe gehiago). Hala ere, urteko hileko batez bestekoa 20.905 langabe erregistratukoa da, urte arteko % 0,5eko jaitsierarekin. Horrek erakusten du erregistratutako langabeziaren bilakaera hiruhileko arteko konparazioan ikusitakoa baino hobea dela.

... eta erregistratutako 21.525 langabe (+% 2,9)

Biztanleria Aktiboaren Inkestaren emaitzek (BAI; INE) behin-behineko balantze negatiboa erakusten dute Bilboren kasuan (hiru hiruhilekoetako batezbestekoa, 2025eko datuekin alderatuta). Horrela, biztanleria landuna (161,5 mila pertsona; -% 5,1) eta egoiliar langabeen kopurua (14,3 mila pertsona; -% 7,3) gutxitu diren bitartean, enplegu-tasak okerrera egin du (% 52,7; -2,0 ehuneko-puntu), eta langabezia-tasa bere horretan mantendu da (% 8,2; -0,1 ehuneko-puntu)

Enplegu-tasak okerrera egin du (% 52,7), eta langabezia-tasa bere horretan mantendu da (% 8,2).

Bizkaiko merkataritza-sektorean, urteko bigarren hiruhilekoko emaitzek 2024ko bigarren hiruhilekotik hautemandako joera positiboa sendotu dute, salmentek berriro gora egin baitute (+% 7,1, prezio arruntetan). Azpisektore guztiek lagundu dute emaitza hori lortzen. Testuinguru horretan, handizkako merkataritzak bilakaera hobea izan du (+% 9,4) txikizkako merkataritzak baino (+% 3,2). Bestalde, enpleguak ere gora egin du (+% 1,2) eta, horrela, bost hiruhileko daramatza hobera egiten.

Merkataritza-sektoreko salmentek gora egin dute (+% 7,1, prezio arruntetan), eta enpleguak ere hobera egin du (+% 1,2).

Bizkaiko merkataritza-gune handietako salmentei dagokienez, urteko hirugarren hiruhilekoko balantzea positiboa izan da prezio arruntetan (+% 2,5), baina ez prezio konstanteetan (-% 1,4). Joera hori bai elikagaien atalean (+% 3,1 eta -% 0,7, prezio arruntetan eta prezio konstanteetan, hurrenez hurren), bai gainerako produktuetan (+% 1,5 eta -% 2,4, egungo prezioetan eta prezio konstanteetan, hurrenez hurren) hauteman da. Bestalde, enpleguak zertxobait egin du okerrera (-% 0,3).

Bizkaiko merkataritza-gune handietako salmentek gora egin dute (+% 2,5 egungo prezioetan), baina enpleguak ez (-% 0,3).

2026ko hirugarren hiruhilekoan, guztira 3.883 ibilgailu berri matrikulatu dira Bizkaian (-% 0,3 urte arteko tasan). Hala ere, urteko balantzea (irailera artekoa) 11.841 ibilgailukoa da, 2025eko aldi berekoa baino % 2,2 gehiagokoa. Emaitza positibo horren oinarrian partikularrentzako ibilgailuen segmentuaren bilakaera ona dago (+% 3,8); enpresen eta bestelakoen merkatua, berriz, apur bat uzkurtu da (-% 1,5). Gainera, matrikulazio berrien % 72 partikularren segmentuari dagokio.

Urtarriletik irailera 11.841 ibilgailu berri matrikulatu dira (+% 2,2).

Urteko hirugarren hiruhilekoan, Bilboko hotel-jarduerak berriro egin du gora bidaiarien kopuruan (377.115, +% 2,3 urte arteko tasan) eta gaualdietan (767.321, +% 2,8). Hazkunde hori lortzen atzerritik etorritako bidaiariek baino ez dute lagundu; izan ere, haien sarrerak (+% 11,4) eta gaualdiak (+% 12,3) handitu dira. Estatuko bidaiarien kopuruak, aldiz, beheranzko joera izan du (-% 13,2 sarreretan eta -% 14,7 gaualdietan). Horren guztiaren ondorioz, nazioarteko segmentuak pisu handiagoa hartu du Hiriko turismo-jardueran, sarreren % 68,6 eta gaualdien % 70,8 hartzen baititu.

Udako denboraldian bidaiarien (+% 2,3) eta gaualdien (+% 2,8) kopuruak gora egin dute, eta inoizko mailarik altuenera iritsi dira...

... eta hobekuntzaren erantzule bakarra atzerriko bidaiarien segmentua izan da

Loiuko aireportuak 2.364.446 bidaiari izan ditu urteko hirugarren hiruhilekoan (+% 15,6, urte arteko tasa), eta beste errekor historiko bat ezarri du. Urte osoko balantzea (irailera artekoa) sei milioi bidaiariko mugara hurbildu da (5.925.796), eta urte arteko % 10,9ko hazkundea izan du. Jardueraren bultzada hori, batez ere, nazioarteko segmentuaren bilakaeran oinarritzen da (+% 20,6, urte arteko tasa), estatuko segmentua askoz dinamismo txikiagoa erakusten ari baita (+% 3,0). Joera horrek bi merkatuen arteko hurbilketa iragartzen du.

Udako jarduerak nabarmen egin du gora Loiun (+% 15,6 urte arteko tasan).

Iraila arte, ia 6 milioi bidaiari garraiatu dira.

Bilboko Portuak 7.971 mila tona garraiatu ditu urteko hirugarren hiruhilekoan. Horrek esan nahi du salgaien trafikoa % 4,8 jaitsi dela urte arteko tasan; hiru merkantzia-talde nagusiek lagundu dute beherakada horretan, baina neurri desberdinean. Hala ere, urteko behin-behineko balantzea (urtarriletik irailera) positiboa da: 25.311 mila tona garraiatu dira; hau da, 2025eko aldi berean baino % 6,3 gehiago.

Bilboko Portuko jarduerak behera egin du (-% 4,8 urte arteko tasan)...

... nahiz eta urteko behin-behineko balantzea positiboa izan (+% 6,3).

Urteko hirugarren hiruhilekoan (uztaila-abuztua, behin-behineko datua), Bizkaiko industria-produkzioak behera egin du (-% 3,3, urte arteko tasa). Beherakada hori manufaktura-jardueraren (-% 4,2) eta erauzketa-industrien (-% 9,3) bilakaeraren ondorio izan da. Energia, gas eta lurrunaren segmentuak (+% 7,7) eta uraren sektoreak (+% 4,8), aldiz, hobera egin dute. Hala eta guztiz ere, urtean metatutako hazkundea (urtarriletik abuztura) apur bat positiboa izatea lortu da (+% 0,6).

Produkzio industriala uzkurtu egin da (urte arteko -% 3,3), baina urteko metatuan (abuztura arte) oraindik hazten ari da (+% 0,6).

2026ko bigarren hiruhilekoan, merkatu-zerbitzuen salmentek berriro egin dute gora (+% 4,0 eta +% 2,3, prezio arruntetan eta prezio konstanteetan, hurrenez hurren), eta horrela, hobekuntza-ibilbide luzea sendotu dute. Hala ere, zerbitzuei lotutako enplegua pixka bat uzkurtu da (-% 0,1), eta azken hiruhilekoetako joera positiboa apurtu da.

Salmentek goranzko joerari eutsi diote (+% 4,0 eta +% 2,3, prezio arruntetan eta prezio konstanteetan). Aldiz, enplegua uzkurtu egin da (-% 0,1).

Bizkaiko BPGa urte arteko % 2,3 hazi da 2026ko bigarren hiruhilekoan, eta % 2tik gorako hazkunde-ibilbideari eutsi dio. Bestalde, hirugarren hiruhilekoko aurrerapen-datuek EAEko % 2,2ko hazkundea aurrez ikusten dute; erreferentzia hori Bizkaiko ekonomiara ere estrapola liteke.

Bigarren hiruhilekoan, Bizkaiko BPGd-a % 2,3 handitu zen

Enpleguak, bere aldetik, goranzko joerari eutsi dio, eta lanaldi osoko baliokidetzan (LOB) 510.376 lanpostura iritsi da. Horrek urte arteko % 1,3ko hazkundea dakar (6.553 pertsona gehiago). Hortaz, urteko lehen seihilekoko balantzeak, bigarren urtez jarraian, milioi bat lanposturen langa gainditu du lanaldi osoko baliokidetzan (1.005.478 lanpostu 2025ean, eta 1.018.422 2026an). Joera horri eutsiz gero, ekitaldia inoizko mailarik handienean amaituko litzateke.

Milioi erdi lanpostuko langa nabarmen handitu da LOBen

Laburbilduz, Bilborako eta Bizkairako 2026ko hirugarren hiruhilekora arte eskuragarri dauden datuek ekitaldiaren amaiera positiboa iragartzen dute, jarduera ekonomikoen artean alde nabarmenak badaude ere. Merkataritzak, merkatu-zerbitzuek, turismoak eta aireko garraioak bilakaera positiboari eutsi diote; produkzio industrialak eta portuko trafikoak, berriz, atzera egin dute azkenaldian, nahiz eta urteko metatuan saldo positiboak mantendu. Oro har, emaitza horiek berresten dute hirugarren sektoreak jarduera ekonomikoari eusteko duen protagonismoa, hazkunde neurritsuko eta nazioarteko ziurgabetasun iraunkorreko testuinguruan.

Urteko metatuaren emaitzak (lehen hiru hiruhilekoetakoak) positiboak dira.

Lan-merkatuak ere bilakaera positibo horri laguntzen dio. Bilbon, Gizarte Segurantzan afiliatutako pertsonen kopuruak gora egin du, eta irailean 200.988 lagunera iritsi da (+% 1,9 urte artean). Bizkaian ere lanaldi osoko baliokidetzako enpleguak gora egin du (+% 1,3 bigarren hiruhilekoan). Hala ere, balantzeak ñabardura garrantzitsuak ditu: kontratazioaren hobekuntza eta urtarriletik irailera bitarteko batez besteko langabezia erregistratuaren beherakada arina batera gertatu dira hiruhilekoaren amaieran erregistratutako langabeziaren gorakadarekin eta Biztanleria Aktiboaren Inkestaren (BAI) arabera egoiliar den biztanleria landunaren murrizketarekin. Horrela, Hiriak eta lurraldeak enplegua sortzeko duten gaitasunak funtsezko izaten jarraitzen du jarduera ekonomikoaren dinamismoari eusteko.

Lan-merkatuari lotutako adierazleak sendotzen ari dira Bilboko bilakaera ekonomikoaren funtsezko faktore gisa.

TESTUINGURUA

Munduko ekonomia

"Munduko ekonomia bere erresilientzia erakusten ari da beste behin ere, nahiz eta modu desorekatuan eta epe laburreko doitze-marjinekin azkar estutzen diren. 2026ko lehen seihilekoan, jarduera ekonomikoak aurrez ikusitakoa baino hobeto eutsi zion egoerari, Ekialde Hurbileko gerrak luzatu eta merkataritza-tentsioek eragindako presioek bere horretan jarraitu arren. Hala adierazi du NDFk, eta, aldi berean, 2027rako munduko hazkunde-aurreikuspenak gorantz berrikusi eta 2026rako aurreikuspenak bere horretan mantendu ditu. Testuinguru horretan, arrisku geopolitiko handiek nazioarteko merkataritza-politikan eragiten dute, eta inflazio-presioek bere horretan jarraitzen dute, batez ere energiaren eta elikagaien prezioen ondorioz.

NDFk argitaratutako aurreikuspenen arabera, munduko ekonomiaren hazkundea % 3,1 eta % 3,4koa izango da 2026 eta 2027an.

Hala ere, urriko aurreikuspenen arabera, munduko ekonomia % 3,1 haziko da 2026an, eta % 3,4 2027an. Horrela, 2027rako aurreikuspena 0,2 ehuneko-puntu gorantz berrikusi da apirileko aurreikuspenarekin alderatuta; 2026rako estimazioa, berriz, bere horretan mantendu da.

Hazkunde ekonomikorako (BPGd) data honetan egindako aurreikuspenak:

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

	2025	2026ko urtarrila		2026ko apirila		2026ko urria	
		2026	2027	2026	2027	2026	2027
MUNDUKO BPGd-a	**3,5**	**3,3**	**3,2**	**3,1**	**3,2**	**3,1**	**3,4**
Ekonomia aurreratuak	**2,0**	**1,8**	**1,7**	**1,8**	**1,7**	**2,1**	**1,8**
Estatu Batuak	2,3	2,4	2,0	2,3	2,1	2,3	2,3
Eurogunea	**1,2**	**1,3**	**1,4**	**1,1**	**1,2**	**1,1**	**1,2**
Alemania	0,2	1,1	1,5	0,8	1,2	1,3	1,1
Frantzia	0,9	1,0	1,2	0,9	0,9	0,4	0,7
Italia	0,5	0,7	0,7	0,5	0,5	0,8	0,6
Espainia	2,6	2,3	1,9	2,1	1,8	2,5	1,8
Emergenteak eta garatzen ai direnak	**4,5**	**4,2**	**4,1**	**3,9**	**4,2**	**3,7**	**4,4**
Txina	5,0	4,5	4,0	4,4	4,0	4,5	4,0
India	7,8	6,4	6,4	6,5	6,5	7,0	7,0
Brasil	2,3	1,6	2,3	1,9	2,0	2,2	1,9
Errusia	1,0	0,8	1,0	1,1	1,1	0,9	0,9

Iturria: Nazioarteko Diru Funtsa (data bakoitzari dagozkion aurreikuspenak)

Ildo horretan, NDFk hiru hamarren gorantz berrikusi ditu ekonomia aurreratuen 2026rako hazkunde-aurreikuspenak (+% 2,1). Estatu Batuetarako aurreikuspena % 2,3an mantendu da; Eurogunearena, berriz, % 1,1ean, nahiz eta herrialde batetik bestera joera desberdinak izan. Alemaniako (+0,5 ehuneko-puntu), Italiako (+0,3 ehuneko-puntu) eta, bereziki, Espainiako (+0,4 ehuneko-puntu) aurreikuspenen hobekuntza nabarmentzen da. Aitzitik, Frantziako aurreikuspena beherantz berrikusi da (-0,5 ehuneko-puntu). Emergenteak diren eta garatzen ari diren ekonomiei dagokienez, 2026rako hazkunde-aurreikuspena bi hamarren murriztu da, % 3,7ra arte.

Ekonomia aurreratuek soilik hobetu dituzte beren aurreikuspenak

2026ko lehen seihilekoan munduko ekonomiak erresilientzia erakutsi duen arren, NDFk ohartarazi du aurreikuspenek ziurgabetasun-faktore eta arrisku ugari dituztela oraindik ere, eta badirudiela horietako batzuk ez direla epe laburrera begira konponduko. Arrisku horien artean nabarmentzekoak dira Ekialde Hurbileko gatazka luzatu izana eta horrek energiaren eta elikagaien prezioetan dituen ondorioak, merkataritza-tentsioen iraunkortasuna, ahultasun fiskalak eta finantza-baldintzak gogortzeko aukera. Testuinguru horren barruan, NDFk azpimarratu du beharrezkoa dela finantza publikoen jasangarritasuna indartzea, moneta- eta finantza-egonkortasuna zaintzea, energia-segurtasuna sendotzea eta nazioarteko merkataritzaren eta lankidetzaren bideak zabalik mantentzea, ekonomiek etorkizuneko nahasmenduen aurrean erantzuteko duten gaitasuna hobetzeko.

Etxeen konfiantza eta aurrezkia

	2025	2025		2026		
		III	IV	I	II	III
Etxeen konfiantza[1] (±100)						
UE-27	-13,5	-13,8	-12,9	-13,5	-18,2	-15,3
Espainia	-2,3	-3,3	-1,0	-2,2	-6,0	-4,6
Etxeen aurrezpena[2]; Δ % urte artean	**5,1**	**5,2**	**5,1**	**5,1**	**3,3**	**3,2**

1 Hiruhileko datua, hileko datuen batezbestekoa, eta urteko datua, hiruhileko datuen batezbestekoa. 2024ko urritik, Eurostatek ez ditu Espainiari dagozkion datuak argitaratzen.
2. Gordailuak. Hiruhileko datua, hiruhileko bakoitzaren azken hilabetearen itxierari buruzkoa, eta urteko datua, urte bakoitzeko abenduari dagokiona. 2026ko hirugarren hiruhilekoko datua, abuztuari dagokiona

Etxeen konfiantza ezkor mantentzen da

Familien konfiantza [1]ezkortasunaren barruan mantentzen da oraindik ere (-15,3), baina zertxobait hobera egin du aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (+2,9 ehuneko-puntu), orduan iritsi baitzen ezkortasunik handiena 2023ko lehen hiruhilekotik (-19,7). Emaitza hori herrialde bakoitzaren errealitateari lotutako ziurgabetasun-mailek (zailtasun espezifikoak dituztenak) baldintzatzen dute, batez ere, eta horri ibilbide inflazionista (partekatua) gehitu behar zaio, % 2ko atalasetik behera kokatu ezin dena.

(Familien) gordailuen saldoak gora egiten jarraitzen du.

Edonola ere,familien konfiantzan nagusi den ezkortasuna ez da Espainiako familien aurrezkietara zabaldu; izan ere, horiek berriro ere gorakada izan dute. Hala, bigarren hiruhilekoz jarraian, gordailuen[2] saldoak % 3tik gorako hazkundea izan du, eta, ondorioz, guztizko saldoa 1.084.152 milioi eurora iritsi da (abuztuaren amaieran).

[1] Kontsumitzaileen konfiantza-adierazlea eraikitzeko etxeen azken eta hurrengo hamabi hilabeteetako egoera ekonomikoa, hurrengo hamabi hilabeteetako egoera ekonomiko orokorra eta hurrengo hamabi hilabeteetako erosketa handiak kontuan hartzen dira. Analisia EB-27ko datuarekin egin da, Eurostatek ez baitu Espainiaren daturik argitaratzen 2024ko urritik aurrera.
[2] Espainiako etxeen Bestelako Finantza Erakunde Monetarioetako gordailuen saldoa.

Euskadiko ekonomia

Euskadiko ekonomia % 2,2 haziko da 2026an

Hazkunde ekonomikoaren gainean Eusko Jaurlaritzak egindako aurreikuspenek[3] hiru hamarreneko gorakada izan dute Euskadiko ekonomiaren 2026rako hazkunde-aurreikuspenean (+% 2,2), eta bi hamarrenekoa 2027rako aurreikuspenean (+% 1,9), 2026ko ekainean egindako aurreikuspenekin alderatuta.

Familien kontsumoa (+% 2,7), hazkunde ekonomikoaren funtsezko eragilea.

Hazkunde ekonomiko hori barne-eskariaren dinamismoaren ondorio da (+% 3,1 eta +% 2,1). Barne-eskariak hobetu egin ditu 2026rako aurreikuspenak (hiru hamarren) eta 2027rakoak (hamarren bat), eta kanpo-saldo negatiboa konpentsatzen du (-% 0,9 eta -% 0,2). Beraz, familien kontsumoa funtsezkoa izango da Euskadiko ekonomiaren hazkunderako (+% 2,7 eta +% 1,9). Kontsumoaren dinamismoa ekainean egindako aurreikuspenekin alderatuta hobetu egin da (hamarren bat bi kasuetan), eta bat dator beste adierazle batzuen bilakaerarekin eta, batez ere, enpleguaren egoera onarekin; izan ere, enpleguak gora egiten jarraitzen du.

Euskal Autonomia Erkidegoa. Egoera makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

	2026ko ekaina		2026ko urria		2026ko urria (*hiruhilekoko bereizketa*)			
	2026	2027	2026	2027	III-26	IV-26	I-27	II-27
BPGd-a	**1,9**	**1,7**	**2,2**	**1,9**	**2,2**	**2,1**	**2,1**	**1,9**
Etxeen kontsumoa	2,6	1,8	2,7	1,9	2,6	2,5	2,2	1,9
Kontsumo publikoa	2,7	1,8	3,4	1,9	3,1	2,8	1,8	1,9
Inbertsioa (KEG)	3,3	2,5	3,6	2,3	3,2	2,9	2,7	2,2
Barne-eskariaren ekarpenak	2,8	2,0	3,1	2,1	2,9	2,7	2,3	2,0
Kanpo-saldoaren ekarpenak	-0,9	-0,3	-0,9	-0,2	-0,7	-0,5	-0,2	-0,1
Lehenengo Sektorea	0,2	2,0	0,8	1,2	2,9	2,2	0,8	1,3
Industria eta energia	0,2	2,0	0,4	1,3	0,5	0,7	1,6	1,4
Eraikuntza	1,1	1,5	1,3	1,1	0,7	0,3	0,9	1,1
Zerbitzuak	2,5	1,8	2,9	2,2	2,8	2,7	2,4	2,1

Iturria: Eusko Jaurlaritza Ekonomia Zuzendaritza (2026ko urria).

Eusko Jaurlaritzak ere lau jarduera-sektore handiei begira doitu ditu bere aurreikuspenak. Horrela, 2026rako eta 2027rako aurreikuspenak honako hauek dira: lehen sektorerako (+% 0,8 eta +% 1,2; +0,6 ehuneko-puntu eta -0,8 ehuneko-puntu), industriarako (+% 0,4 eta +% 1,3; +0,2 ehuneko-puntu eta -0,7 ehuneko-puntu), eraikuntzarako (+% 1,3 eta +% 1,1; +0,2 ehuneko-puntu eta -0,4 ehuneko-puntu) eta zerbitzuen sektorerako (+% 2,9 eta +% 2,2; +0,4 ehuneko-puntu eta +0,4 ehuneko-puntu). Beraz, aurreko datuetatik ondoriozta daiteke hirugarren sektorearen aurreikuspenak soilik berrikusi direla gorantz, bai 2026rako, bai 2027rako. Gainerako sektoreek, aldiz, 2027rako aurreikuspenen beheranzko doikuntzak dituzte.

Aurreikuspen horiek bat datoz Euskadiko ekonomiaren termometroaren[4] emaitza onekin. Adierazle horren arabera, 2026ko hirugarren hiruhilekoan 101,8 puntuko balioa izan du ekonomiak; urteko bigarren hiruhilekoan erregistratutako 99,0 puntuak baino handiagoa, baina 2025eko hirugarren hiruhilekoan lortutako 103,1 puntuak baino zertxobait txikiagoa (-1,3 puntu). Hala ere, Euskadiko enpresen 2026ko laugarren hiruhilekorako aurreikuspenek[5]

[3] 2026ko urrian argitaratutako kalkuluak.
[4] Erreferentzia-unearen egoeraren adierazlea: hazkunde irmoa (100 eta gehiago), leuna (50-100) eta desazkundea (50etik behera).
[5] Inkesta EAEko 400 enpresari egin zitzaien. Landa-lana 2026ko maiatzaren 13tik 28ra bitartean egin zen.

positiboak izaten jarraitzen dute (55,1 puntu), nahiz eta elementu guztien balorazioan beheranzko joera antzematen den.

Euskal ekonomiaren termometroa: adierazle sintetikoa



Iturria: Eusko Jaurlaritza Ekonomia Zuzendaritza

EAEko enpresa-aurreikuspenak



Iturria: Enpresa-konfiantza. Laboral Kutxa

Euskal familien konfiantzak[6] mesfidantza-mailan jarraitzen du (-9), aurreko hiruhilekoetako maila berean. Hala ere, 2025eko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta, okerrera egin du (-6). Emaitza horretan eragina izan du, batez ere, ekonomia orokorraren bilakaerari buruzko ezkortasunak (-26), eta, neurri txikiagoan, etxeko ekonomiaren ingurukoak (-11) eta langabeziari buruzkoak (-4). Hori guztia, familien aurrezteko gaitasunaren inguruko aurreikuspenak baikorrak diren testuinguruan (+3).

Euskal etxeen konfiantza

	2025	2025		2026		
		III	IV	I	II	III
Etxeen konfiantza (-100 eta +100 artean)	-6	-6	-9	-8	-9	-9

Iturria: Euskadiko etxeen konfiantza. Laboral Kutxa

[6] Euskadiko 800 etxetan egindako kontsulta (2026ko abuztuaren 24tik irailaren 4ra bitarte).

Prezioak eta inflazioa

Urtarriletik hona, inflazio-ratiorik handiena irailean erregistratu da

2026ko irailean, inflazioak berriro egin zuen gora, eta Bizkaian 5 puntuko langa gainditu zuen; 2023ko otsailetik ez zen halakorik gertatzen. Zehazki, hazkunde-tasak % 5,3koak izan dira Bizkaian, % 5,0koak EAEn eta % 4,9koak Estatuan. Hala, urteko lehenengo hiruhilekoan hasitako hazkundea mantendu egingo da, eta, aurreikuspenen arabera, urte amaiera arte mantenduko da. Era berean, Estatuan eta EAEn Bizkaian baino portaera hobea izan da (+% 3,4, +% 3,4 eta +% 3,8, hurrenez hurren, urtarrila-iraila bitarteko batezbestekoan).

Azpiko osagaiari dagokionez (+% 3,1 eta +% 3,4, Estaturako eta EAErako), era berean, egiaztatu da goranzko joera izan duela urtean zehar, eta Estatuan zertxobait neurrizkoagoa dela. Hala eta guztiz ere, eta INEren arabera, inflazioaren gorakadan eragin handiena duen taldea garraio-sektorea da, erregaien prezioen gorakadak baldintzatuta.

KPI Espainian, EAEn eta Bizkaian

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

		KPI orokorra			Azpiko KPIa [1]	
		Estatua	EAE	Bizkaia	Estatua	EAE
2025	urria	3,1	3,2	3,3	2,5	2,5
	azaroa	3,0	3,2	3,4	2,6	2,7
	abendua	2,9	2,9	3,0	2,6	2,4
2026	urtarrila	2,3	2,3	2,6	2,6	2,6
	otsaila	2,3	2,4	2,7	2,7	2,7
	martxoa	3,4	3,4	3,7	2,9	3,0
	apirila	3,2	3,2	3,6	2,8	2,8
	maiatza	3,2	3,2	3,5	3,0	2,9
	ekaina	3,2	3,2	3,5	2,9	2,8
	uztaila	3,6	3,7	4,0	3,0	3,1
	abuztua	4,3	4,5	4,9	2,9	3,3
	iraila	**4,9**	**5,0**	**5,3**	**3,1**	**3,4**

1. Landu gabeko elikagairik eta produktu energetikorik gabe. Ez dago eskuragarri Bizkaian.
Iturria: INE

Europako KPIari buruz eskuragarri dagoen azken informazioak adierazten du adierazle horrek gora egin duela aztertutako herrialde guztietan. Horrek agerian uzten du inflazio-testuinguru iraunkorra dagoela, herrialde guztiek partekatzen dutena. Izan ere, aztertutako herrialde ia guztiek % 2ko helburua nabarmen gainditzen duen KPIa dute. Zehazki, Euroguneak (% 3,8) eta EB-27k (% 3,2) % 3ko langa gainditu dute. Inflazioaren igoera hori honako herrialde hauetako hazkundeen ondorio da: Espainia (% 5,0), Italia (% 4,1), Frantzia (% 3,4), Alemania (% 3,3), Herbehereak (% 3,0) eta Danimarka (% 2,0).

Azpiko inflazioak, KPI orokorrak baino igoera neurritsuagoak izan dituenak, bilakaera desberdinagoa izan du herrialdeen arabera; Suediako egonkortasunaren (% 0,0) eta Espainiari dagokion % 3,2ko hazkundearen artean kokatu da.

Testuinguru horretan, EBZk azken berrikuspenean interes-tasak oinarrizko 25 puntutan igotzea erabaki du; hala, gordailutzeko erraztasunari aplikatu beharreko interes-tasa % 2,5 izango da, finantzaketa-eragiketa nagusiena % 2,65 eta kreditu-erraztasun marjinala % 2,90. EBZk honela justifikatu du erabakia: *"Inflazio orokorra, batez beste, % 3,0koa izango da 2026an, % 2,5ekoa 2027an eta % 2,1ekoa 2028an. Energiaren eta elikagaien prezioak kanpoan utzita, inflazioa % 2,5ekoa izango da 2026an, % 2,6koa 2027an eta % 2,3koa*

2028an. Ekainarekin alderatuta, 2026rako inflazioaren oinarrizko proiekzioa ez da aldatu, baina 2027rako eta 2028rako gorantz berrikusi da. Hazkunde ekonomikoaren oinarrizko proiekzioa % 0,9koa da 2026rako, % 1,4koa 2027rako eta % 1,5ekoa 2028rako. 2026rako eta 2027rako goranzko berrikuspen horrek, batez ere, Euroguneko ekonomiak espero baino erresilientzia handiagoa erakutsi izana islatzen du".

EB-27ko KPI bateratua eta Europako ekonomiak. 2026ko iraila

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

	urte arteko tasa		Diferentzia / Ekai-26 (ehuneko-puntuak)	
	KPI orokorra[1]	Azpiko KPI[2]	KPI orokorra	Azpiko KPIa
Eurogunea	**3,8**	**2,2**	**1,1**	**0,1**
Alemania	3,3	2,2	0,9	-0,1
Frantzia	3,4	1,4	1,4	0,3
Espainia	5,0	3,2	1,4	-0,1
Italia	4,1	1,6	1,1	0,1
Herbehereak	3,0	2,3	0,5	0,0
Danimarka*	2,0	2,1	0,2	0,0
*Suedia	0,3	0,0	-0,7	0,1
UE-27*	**3,2**	**2,3**	**0,3**	**-0,1**

1. HICP - KPI orokor bateratua; 2. HICP - Prestatu gabeko elikagairik eta produktu energetikorik gabeko KPI
* Abuztuari dagozkion datuak.
Iturria: Eurostat

Hala eta guztiz ere, EBZk adierazi duenez, *"prest dagoela bere agintaldiaren esparruan tresna guztiak doitzeko, inflazioa epe ertainean % 2ko helburuan egonkortuko dela ziurtatzeko eta diru-politikaren transmisioaren funtzionamendu egokia zaintzeko. Gainera, Eskualdatzea Babesteko Tresna eskuragarri dago nahi ez diren edo ordenarik ez duten merkatu-dinamikei aurre egiteko, Euroguneko herrialdeetako diru-politikaren transmisiorako mehatxu larria baitira; horri esker, Gobernu Kontseiluak eraginkortasun handiagoz bete dezake prezioen egonkortasunari buruzko bere agindua".*

Euriborra, 12 hilabetera (%)



Iturria: Espainiako Bankua

EAEko BPGd-a

EAEko BPGd-a % 2,2 hazi da hirugarren hiruhilekoan

Hirugarren hiruhilekoko aurrerapenaren datuen[7] arabera, Euskadiko ekonomia % 2,2 eta % 0,5 hazi zen, urte arteko eta hiruhileko arteko tasetan, hurrenez hurren. Emaitza horrek agerian uzten du 2026an zehar euskal ekonomiaren ezaugarri izan den hazkunde neurritsuaren sendotzea. Alde horretatik, Euskadiko ekonomiak 2026ko lehen hiru hiruhilekoak eramango lituzke Eusko Jaurlaritzak 2026. urte osorako egindako hazkunde ekonomikoaren zenbatespena lortuz edo gaindituz.

EUSTATek adierazitakoaren arabera, *"aurrerapen hau prestatzeko unean eskuragarri dagoen koiunturazko informazio ekonomikoak adierazten du urteko hirugarren hiruhilekoan izandako hazkundea eraikuntzaren eta zerbitzuen sektoreen bilakaera positiboan oinarritzen dela"*.

EAEko BPGd-a



Iturria: Eustat (Kontu ekonomikoak eta hiruhilekoko kontuak). Urtarokotasun- eta egutegi-efektuetatik zuzendutako datuak, bolumen kateatuko indizean eta 2022ko oinarrian.

Hala eta guztiz ere, urteko bigarren hiruhilekoari buruzko informazioak EAEko jarduera ekonomikoaren % 2,3ko eta % 0,7ko hazkundea erakusten du, urte arteko eta hiruhileko arteko tasetan, hurrenez hurren. Horrek egonkortasun-profila erakusten du 2024ko bigarren hiruhilekotik hona (urte arteko hazkundea % 2,2 eta % 2,3 ingurukoa izan da).

Dinamismo horren atzean, batez ere, zerbitzuen sektoreak izandako portaera ona dago (% 3) —EAEko ekonomiaren bilakaera orokorrean eragin erabakigarria duen sektorea—, bai eta eraikuntzarena ere (% 1,7). Industria eta energiaren sektoreak hazkunde txikiagoa izan du (% 0,5), eta lehen sektoreak, berriz, % 0,2ko beherakada izan du.

Enpleguak beste errekor historikoa hautsi du EAEn, urte arteko % 1,3ko hazkundea izan ondoren.

EAEren ekonomia-portaera ona enpleguari buruzko datuetan ikus daiteke; izan ere, hazkunde jarraituko profilari eutsi diote, eta ondoz ondoko hogeita bat hiruhilekotan hobetu dira (2021eko bigarren hiruhilekotik). Ildo horretan, 2026ko bigarren hiruhilekoan, EAEko

[7] Irailaren 19an argitaratuak. Hirugarren hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak abenduaren 3an argitaratuko dira.

enplegu-kopuruak marka historikoa lortu du berriro, lanaldi osoko baliokidetzan 1.018.151 lanpostura iritsita. Horrek % 1,3ko urte arteko igoera eta 2025eko bigarren hiruhilekoan baino 13.239 lanpostu gehiago izatea dakar.

Azkenik, enpleguaren bilakaeraren eta osaeraren azterketak erakusten du zerbitzuen sektorearen portaera ona (% 0,9ko urte arteko hazkundea; EAEko enplegu osoaren % 72,2) erabakigarria izan dela EAEko enpleguaren igoeran. Eraikuntzari lotutako enpleguak ere gora egin du (% 0,9ko urte arteko hazkundea; enplegu osoaren % 6,3), baita industria eta energiaren sektorekoa ere, neurri txikiagoan bada ere (% 0,4ko hazkundea; enplegu osoaren % 20,4). Lehen sektoreak, aldiz, enplegua galdu du (% 0,5eko beherakada; enplegu osoaren % 1,2).

EAEko BPGd-a, sektoreen arabera

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

	2025			2026	
	II	III	IV	I	II
BPGd-a	**2,3**	**2,4**	**2,3**	**2,2**	**2,3**
Lehenengo Sektorea	-0,1	-2,3	-2,5	-1,9	-0,2
Industria eta energia	0,4	0,7	0,5	0,0	0,5
Eraikuntza	3,7	4,2	3,8	2,5	1,7
Zerbitzuak	2,8	2,8	2,7	2,9	3,0
LOB enplegua	**1,9**	**1,7**	**1,5**	**1,3**	**1,3**

Iturria: Eustat (Kontu ekonomikoak eta hiruhilekoko kontuak). Urtaro- eta egutegi-ondorioei buruzko datu zuzenduak BPGd-a bolumen kateatuaren indizeari dagokionez, 2022ko oinarrian.

LAN-MERKATUA

Afiliazioa

Afiliazioa % 1,9 handitu da urtetik urterako datuari dagokionez

Gizarte Segurantzak argitaratutakoaren arabera, urteko hirugarren hiruhilekoaren amaieran (iraileko datua), afiliazio-kopurua 200.988koa izan da. Horrek % 1,9ko urte arteko igoera eta 2025eko hirugarren hiruhilekoan baino 3.794 afiliazio gehiago izatea dakar. Horrenbestez, enpleguaren hobekuntza-joera sendotu egin da. Era berean, hiruhileko arteko bilakaera positiboa izan da: 2026ko ekainarekin alderatuta, % 0,5eko igoera izan da; hau da, 946 afiliazio gehiago.

Urtarriletik irailera bitarteko datu metatuan, batez besteko afiliazio kopurua 199.924 pertsonakoa izan da, 2025eko aldi berekoa baino % 1,3 handiagoa. Emaitza horrek batez beste 2.651 afiliazio gehiago izatea ekarri du, eta urteko lehen bederatzi hilabeteetako batez bestekoa 200.000 afiliaziotik gertu kokatu du.

Afiliazioa



Iturria: Gizarte Segurantza

Erregimen Orokorraren dinamismoa erabakigarria izan da afiliazioa hobetzeko

Afiliazioaren hazkundea Erregimen Orokorraren portaera onaren ondorio da (+% 1,9ko urte arteko hazkundea), 171.581 afiliaziora iritsi baita. Horrez gain, Langile Autonomoen Erregimen Bereziak (+% 1,0) eta Etxeko Langileen Erregimenak (+% 8,6) ere gora egin dute. Aldiz, "beste erregimen batzuk" atalean, % 7,4ko jaitsiera gertatu da urtetik urterako tasan. Hiruhileko arteko bilakaerari dagokionez, Erregimen Orokorreko afiliazioak (+% 0,4), langile autonomoenak (+% 0,2) eta etxeko langileenak (+% 3,7) gora egin dute; beste araubide batzuek, berriz, atzerakada txikia izan dute (-% 0,3).

Araubideen araberako banaketari dagokionez, Erregimen Orokorrak biltzen du afiliazioaren zatirik handiena (afiliazio osoaren % 85,4), eta, ondoren, Langile Autonomoen Erregimen

Bereziak (% 11,0). Bestalde, Etxeko Langileen Erregimenak afiliazio osoaren % 3,3 hartzen du, eta gainerako erregimenek, berriz, oso partaidetza txikia dute (% 0,4).

Afiliazioa, araubideen arabera

	09,2026	Hiruhileko arteko Δ % (2026ko ekaina)	Urte arteko Δ % (2025eko iraila)
GUZTIRA	**200.988**	**0,5**	**1,9**
Araubide orokorra	171.581	0,4	1,9
Autonomoak	22.077	0,2	1,0
Etxeko langileak	6.620	3,7	8,6
Bestelakoak	710	-0,3	-7,4

Iturria: Gizarte Segurantza

Afiliatuak, jarduera-adarren arabera

	09,2026	Hiruhileko arteko Δ % (2026ko ekaina)
Lehenengo Sektorea	**332**	**0,6**
Industria eta Energia	**8.542**	**-0,6**
Industria	4.735	0,0
Energia	1.160	0,7
Hondakinak eta ura	2.647	-2,0
Eraikuntza	**9.753**	**2,0**
Eraikuntza	2.970	2,7
Eraikuntza-laguntzailea	6.783	1,7
Zerbitzuak	**182.344**	**0,4**
Merkataritza	19.401	-1,2
Garraioa eta biltegiratzea	10.360	1,0
Ostalaritza	11.940	8,0
Ostatua	2.114	1,0
Informazioa eta komunikazioak	10.968	0,0
Finantzak eta aseguruak	7.901	-0,2
Higiezinen jarduerak	1.688	0,5
Jarduera profesional zientifikoak eta teknikoak:	15.730	0,0
Administraziokoak eta laguntza zerbitzuetakoak	19.401	3,1
Administrazio publikoa	12.006	-2,3
Hezkuntza	25.670	-0,8
Osasuna	16.190	-0,3
Gizarte-zerbitzuak	10.040	-2,8
Aisialdikoak eta kulturalak	4.519	5,2
Etxeko langileak	7.058	3,6
Beste zerbitzu batzuk	7.358	-2,4

Oharra: Kopuru osora arteko aldea sektore-esleipena zehaztu gabe duten afiliazioei dagokie.
Iturria: Gizarte Segurantza

Afiliazioak gora egin du zerbitzuen eta eraikuntzaren sektoreetan, eta behera egin du industrian.

Sektoreen araberako ikuspegiari dagokionez, portaerak heterogeneoak dira. Hala, hiruhileko arteko azterketak erakusten du zerbitzuen sektoreak gora egin duela (+% 0,4); izan ere, sektore horretan biltzen da afiliazio osoaren % 90,7. Honako jarduera hauetan izandako igoerak nabarmentzen dira: ostalaritza (+% 8,0), aisialdi- eta kultura-jarduerak (+% 5,2), administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak (+% 3,1), etxeko langileak (+% 3,6), garraioa eta biltegiratzea (+% 1,0), ostatu-zerbitzuak (+% 1,0) eta higiezinen jarduerak (+% 0,5). Aldiz, sektoreko beherakadarik handienak gizarte-zerbitzuetan (-% 2,8), beste zerbitzu batzuetan (-% 2,4) eta administrazio publikoan (-% 2,3) izan dira. Neurri txikiagoan, merkataritzak (-% 1,2), hezkuntzak (-% 0,8), osasun-jarduerak (% 0,3) eta finantza- eta aseguru-jarduerek (-% 0,2) ere behera egin dute. Eraikuntzaren sektoreak, berriz, afiliazioaren % 2,0ko igoera izan du; industriak eta energiak, aldiz, ia bere horretan mantendu dute afiliazio-maila (-% 0,6ko beherakada).

Benchmarkinga. Afiliazioa

	09,2026	Hiruhileko arteko Δ % (2026ko ekaina)	Urte arteko Δ % (2025eko irailarekiko)
Madril	2.497.516	0,9	3,8
Bartzelona	1.285.862	1,0	3,0
Valentzia	498.793	1,4	5,5
Sevilla	430.121	1,6	3,2
Zaragoza	341.811	3,3	3,7
G-5en batezbestekoa	--	**1,7**	**3,8**
BILBO	**200.988**	**0,5**	**1,9**
Gasteiz	134.966	1,5	3,9
Donostia	129.882	0,1	2,0
Iruñea	123.085	1,3	4,0
G-3ren batezbestekoa	--	**0,9**	**3,3**
G-9ren batezbestekoa	--	**1,3**	**3,4**

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Gasteiz, Donostia eta Iruñea G-9: G-5, G-3 eta Bilbo.
Iturria: Gizarte Segurantza

Erreferentzia-hiriburu guztietako enpleguaren urtetik urterako hazkundea

Erreferentziazko hiriburuek afiliazioaren urte arteko bilakaera positiboa partekatzen dute. G-5 taldearen batez besteko hazkundea % 3,8koa da izan da, honako hiriburu hauetan izandako hazkundeei esker: Madril (% 3,8), Bartzelona (% 3,0), Valentzia (% 5,5), Sevilla (% 3,2) eta Zaragoza (% 3,7). G-3 taldean, batez besteko igoera % 3,3koa da. Hazkundearen lehen postuetan, Iruñea (% 4,0) eta Gasteiz (% 3,9) daude; Donostia, berriz, hazkunde txikiagoa izaten ari da (% 2,0).

Kontratuak

2026ko hirugarren hiruhilekoan, 32.674 kontratu berri erregistratu dira Bilbon bizi diren pertsonen artean, eta hiruhileko arteko % 3,0ko igoera izan du. Kontratu motaren araberako bilakaerak portaera desberdinak erakusten ditu. Horrela, kontratazio mugagabeak gora egin du bai hiruhileko arteko terminoetan (+% 3,0), bai urte artekoetan (+% 10,6). Aldi baterako kontratazioak, berriz, behera egin du aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (-% 2,3), eta egonkor mantendu da urte arteko konparazioan (% 0,0).

Hirugarren hiruhilekoan, 32.674 kontratu berri erregistratu dira Bilbon bizi diren pertsonen artean.

Kontratazioak hiruhileko arteko beherakada txikia izan du, gizonen kolektiboan kontratazio gutxiago erregistratu delako (-% 1,7); emakumeen artean, aldiz, igoera txikia izan da (+% 0,2). Adinaren arabera, 16 eta 24 urte bitarteko pertsonek sinatutako kontratuen beherakada nabarmentzen da (-% 7,2). Gainerako adin-taldeek, berriz, aldakuntza positiboak izan dituzte, bereziki 35 eta 44 urte bitartekoen taldeak (+% 4,0). Sektoreen arabera, lehen sektoreak soilik izan du hobekuntza (+% 38,1); eraikuntzan (-% 3,1), zerbitzuetan (-% 1,1) eta industria eta energiaren sektorean (-% 0,9), aldiz, beherakadak izan dira.

Kontratazioak urte arteko hobekuntza izan du (+% 3,0), hiruhileko arteko beherakadaren aurrean (-% 0,7).

Urte arteko datuei dagokienez, igoera emakumeen eta gizonen artean gertatu da (+% 3,0), nahiz eta aldeak egon adin-taldeen arabera. Dinamismorik handiena 25 eta 34 urte bitarteko pertsonen (+% 9,2) eta 35 eta 44 urte bitartekoen (+% 7,9) artean egon da; gazteenen kolektiboak, aldiz, beherakada izan du (-% 3,7). Sektoreen arabera, eraikuntzaren hazkundea nabarmentzen da (+% 27,5), eta ondoren zerbitzuena (+% 2,4), lehen sektorearena (+% 2,2) eta industria eta energiarena (+% 0,1).

Urteko balantze metatuak kontratazioaren bilakaera positiboa berresten du: 92.102 kontratu berri egin dira (urte arteko +% 7,1eko igoera; 6.086 kontratu gehiago). Hazkunde hori handiagoa izan da gizonen artean (+% 8,4) emakumeen artean baino (+% 5,8), eta adin-talde guztietan izan da. Horrekin lotuta, nabarmentzekoa da 25 eta 34 urte bitarteko pertsonen gorakada (+% 8,7). Kontratu-modalitateei dagokienez, kontratazio mugagabeak aldi baterakoak baino dinamismo handiagoa erakutsi du (+% 14,5 eta +% 4,1, hurrenez hurren). Sektoreka, kontratazioa gehiago hazi da eraikuntzan (+% 14,6) eta zerbitzuetan (+% 7,3) industria eta energiaren sektorean baino (+% 2,6). Lehen sektorean, berriz, kontratazioa ia bere horretan mantendu da (-% 0,1eko beherakada).

Metatuan balantze oso positiboa izan du (+% 7,1, urte arteko tasan)

Kontratuak

	III.2026			I-III. 2026	
	Kop.	Δ % hiruhileko artean	Δ % urte artean	Kop.	Δ % urte artean
GUZTIRA	**32.674**	**-0,7**	**3,0**	**92.102**	**7,1**
Emakumeak	16.530	0,2	3,0	46.742	5,8
Gizonak	16.144	-1,7	3,0	45.360	8,4
16-24 urte bitartekoak	8.886	-7,2	-3,7	24.512	6,7
25-34 urte bitartekoak	9.546	0,9	9,2	26.795	8,7
35-44 urte bitartekoak	6.037	4,0	7,9	17.032	7,0
45 urte eta gehiagokoak	8.205	1,8	0,6	23.763	5,8
Mugagabeak	10.159	3,0	10,6	28.285	14,5
Aldi baterako kontratuak	22.515	-2,3	0,0	63.817	4,1
Lehenengo Sektorea	504	38,1	2,2	1.247	-0,1
Industria eta energia	2.424	-0,9	0,1	6.908	2,6
Eraikuntza	1.269	-3,1	27,5	3.681	14,6
Zerbitzuak	28.477	-1,1	2,4	80.266	7,3

Bilbon bizi den pertsonen erregistratutako kontratazio berriak.
Iturria: Lanbide

Erregistratutako langabezia

Langabeziak % 2,9 egin du gora irailean, urte arteko datuei dagokienez

Irailean, 21.525 pertsona zeuden langabezian Bilbon. Horrek % 2,9ko urte arteko igoera eta 2025ean baino 598 langabe gehiago izatea dakar. Hiruhileko arteko bilakaera ere ez da aldekoa izan: langabeziak % 5,2 egin du gora ekainarekin alderatuta (+1.067 langabe). Hala ere, urtarriletik irailera bitarteko balantze metatuak bilakaera hobea erakusten du. Izan ere, hileko batez besteko langabe kopurua 20.905 pertsonakoa izan da, aurreko urteko aldi berean erregistratutakoa baino % 0,5 txikiagoa. Horrek adierazten du langabeziaren bilakaera neurritsuagoa izan dela urteko lehen bederatzi hilabeteetan, oro har.

Generoaren ikuspegitik, erregistratutako langabeziak gora egin du bi kolektiboetan, baina askoz ere intentsitate handiagoz gizonen artean (+% 5,9) emakumeen artean baino (+% 0,6). Adinaren arabera, langabeziak gora egin du 16 eta 24 urte bitarteko pertsonen artean (+% 11,2), 25 eta 34 urte bitartekoen artean (+% 7,6) eta 35 eta 44 urte bitartekoen artean (+% 4,4). 45 urteko eta gehiagoko kolektiboak, aldiz, beherakada txikia izan du (-% 0,4). Langabezian emandako denborari dagokionez, honako igoera hauek nabarmentzen dira: sei hilabete baino gutxiago daramatenen artean (+% 13,0) eta urtebete eta bi urte artean daramatenen artean (+% 2,9). Aitzitik, langabeziak behera egin du sei hilabete eta urtebete artean daramatenen artean (-% 6,0), bi eta hiru urte artean daramatenen artean (-% 9,8) eta hiru urte baino gehiago daramatenen artean (-% 0,2). Era berean, langabezia-prestaziorik jasotzen ez duten pertsonen kolektiboa % 1,5 handitu da.

Erregistratutako langabezia



Iturria: SEPE

Aurreko hiruhilekoarekiko bilakaerak langabeziaren igoera orokorra berresten du (+% 5,2), nahiz eta portaera desberdinak izan profilaren arabera. Sexuaren arabera, gizonen langabezia emakumeena baino gehiago hazi da (+% 8,1 eta +% 3,1, hurrenez hurren). Adin-taldeen arabera, igoera orokorra izan da. Hazkunderik handienak 25 eta 34 urte bitarteko pertsonen artean (+% 13,1) eta 16 eta 24 urte bitartekoen artean (+% 13,0) izan dira; ondoren, 35 eta 44 urte bitartekoen kolektiboan (+% 7,5). 45 urteko eta gehiagoko pertsonen artean, berriz, igoera askoz ere neurritsuagoa izan da (+% 1,0). Langabezian emandako denboraren

arabera, sei hilabete baino gutxiago daramaten langabeen kolektiboaren hazkundea nabarmentzen da (+% 16,9). Aitzitik, beherakadak izan dira sei hilabete eta urtebete artean langabezian daramatenen artean (-% 3,3) eta bi eta hiru urte artean daramatenen artean (-% 2,2). Bestalde, langabezia-prestaziorik jasotzen ez duten langabeen kopuruak % 5,7 egin du gora.

Erregistratutako langabezia

	09,2026	Hiruhileko arteko Δ % (2026ko ekaina)	Urte arteko Δ % (2025eko irailarekiko)
GUZTIRA	**21.525**	**5,2**	**2,9**
Emakumeak	9.480	3,1	0,6
Gizonak	12.045	8,1	5,9
16-24 urte bitartekoak	2.052	13,0	11,2
25-34 urte bitartekoak	3.750	13,1	7,6
35-44 urte bitartekoak	4.052	7,5	4,4
45 urte eta gehiagokoak	11.671	1,0	-0,4
6 hilabetera arte	7.742	16,9	13,0
6 hilabete eta 1 urte bitartean	2.851	-3,3	-6,0
Urte 1 eta 2 urte bitartean	3.098	1,9	2,9
2 eta 3 urte bitartean	1.659	-2,2	-9,8
3 urte baino gehiago	6.175	0,3	-0,2
Ez du langabezia-prestaziorik kobratzen	15.906	5,7	1,5

Iturria: SEPE eta Lanbide

Hiriburu nagusien arteko azterketa konparatuak erakusten du erregistratutako langabeziak, oro har, gora egin duela urte arteko datuei dagokienez, nahiz eta hirien artean alde nabarmenak dauden. Estatuko hiriburu handien taldean (G-5), langabeziak % 0,9ko batez besteko igoera izan du. Nabarmentzekoak dira Bartzelonan +(% 5,5), Zaragozan (+% 3,7) eta Madrilen (+% 2,8) izandako igoerak, eta, ondoren, Valentzian erregistratutakoa (+% 0,9). Sevilla izan da langabezia jaitsi den hiri bakarra (-% 8,4). Euskal hiriburuen taldean (G-3), batez besteko igoera % 2,9koa izan da. Nabarmentzekoa da Iruñean erregistratutako hazkundea (+% 6,4), Donostian (+% 1,5) eta Gasteizen (+% 0,7) izandakoa baino handiagoa izan baita.

Benchmarkinga. Erregistratutako langabezia

	09,2026	Hiruhileko arteko Δ % (2026ko ekaina)	Urte arteko Δ % (2025eko irailarekiko)
Madril	136.522	5,6	2,8
Bartzelona	65.991	7,9	5,5
Valentzia	43.034	4,5	0,9
Sevilla	49.233	0,2	-8,4
Zaragoza	28.832	3,8	3,7
G-5en batezbestekoa	--	**4,4**	**0,9**
BILBO	**21.525**	**5,2**	**2,9**
Gasteiz	14.256	5,8	0,7
Donostia	6.538	3,6	1,5
Iruñea	10.199	8,4	6,4
G-3ren batezbestekoa	--	**6,0**	**2,9**
G-9ren batezbestekoa	--	**5,0**	**1,8**

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Gasteiz, Donostia eta Iruñea G-9: G-5, G-3 eta Bilbo.
Iturria: SEPE

Biztanleria aktiboa

INEren Biztanleria Aktiboaren Inkestaren (BAI) azken datuen arabera, urteko hirugarren hiruhilekoari dagozkionak, Bilbon bizi den biztanleria aktiboa 177,2 mila pertsonakoa da, eta horrek urte arteko % 0,8ko igoera dakar. Bestalde, biztanleria landuna % 0,9 jaitsi da, 163,1 mila pertsonaraino; langabeen kopuruak, berriz, nabarmen egin du gora (+% 25,9).

Urteko datu metatuen azterketa erabilgarriagoa da Hiriko lan-jarduerari buruzko BAIren adierazleen bilakaera ikusteko. Hala, 2026ko behin-behineko balantzea negatiboa da, landunen kopurua (% 5,1) eta langabeena (% 7,3) murriztu baitira. Hala ere, emaitza horiek ez datoz bat Gizarte Segurantzako afiliazioaren igoerarekin eta erregistratutako langabeziaren jaitsierarekin (SEPE-Lanbide).

Biztanleria aktiboa, landuna eta langabea



Iturria: Biztanleria aktiboaren inkesta, INE (2021eko oinarria)

Biztanleria aktiboa, landuna eta langabea eta adierazleak (enplegu- eta langabezia-tasa)

	III.2026	Δ %		Batez bestekoa (I-III)		Δ % (urte artekoa)
		Hiruhileko artekoa	Urte artean	2025	2026	
Biztanleria aktiboa (milaka)	**177,2**	**2,3**	**0,8**	**185,6**	**175,8**	**-5,3**
Biztanleria okupatua (milaka)	163,1	3,4	-0,9	170,2	161,5	-5,1
Nekazaritza	--	--		--	--	
Industria	24,1	8,6	40,1	16,6	22,9	37,9
Eraikuntza	8,3	10,7	1,2	10,9	7,7	-28,8
Zerbitzuak	130,7	2,1	-6,2	142,7	130,9	-8,3
Biztanleria langabetua (milaka)	14,1	-9,6	25,9	15,5	14,3	-7,3
Enplegu-tasa (%)	**53,77**	**2,7**	**-0,9**	**54,69**	**52,70**	**-2,0**
Emakumeak	48,96	-6,6	-1,8	52,61	51,18	-1,4
Gizonak	58,87	12,1	-0,2	56,99	54,50	-2,5
Langabezia-tasa (%)	**7,97**	**-1,1**	**1,6**	**8,28**	**8,16**	**-0,1**
Emakumeak	8,02	-0,1	-1,3	8,40	8,40	0,0
Gizonak	7,92	-1,9	4,6	8,17	7,92	-0,3

Enplegu-tasarako eta langabezia-tasarako aldakuntza-tasa ehuneko puntuetan.
Iturria: Biztanleria aktiboaren inkesta, INE (2021eko oinarria)

MERKATARITZA

Urteko bigarren hiruhilekoko emaitzek 2024ko bigarren hiruhilekotik hautemandako joera positiboa sendotu dute. Izan ere, Bizkaiko merkataritza-sektorearen salmentek berriro egin dute gora (+% 7,1, prezio arruntetan). Azpisektore guztiek lagundu dute emaitza horretan; hala ere, handizkako merkataritza izan da bilakaerarik onena izan duena (+% 9,4). Horrela, txikizkako merkataritzaren salmentak % 3,2 hazi dira, elikagaien salmenten bilakaera onari (+% 4,3) eta gainerako produktuen salmentei (+% 2,0) esker. Era berean, ibilgailuen salmentaren eta konponketaren sektoreak salmentetan urte arteko % 5,2ko hazkundearekin itxi du hiruhilekoa. Beste nolabait esanda, urteko lehen seihilekoko balantzeak agerian utzi du Bizkaiko merkataritza-sektorearen salmenten dinamismoa.

Merkataritza-sektoreko salmentek gora egin dute (+% 7,1, prezio arruntak)

Hobekuntza hori prezio konstanteetako salmenten bilakaeran ere antzematen da. Salmenta horiek % 4,8 hazi dira, handizkako merkataritzan (+% 6,6), txikizkako merkataritzan (+% 2,8) eta, neurri txikiagoan, ibilgailuen salmentaren eta konponketaren sektorean (+% 0,7) izandako gorakadari esker.

Bestalde, merkataritza-sektoreari lotutako enpleguak bilakaera positiboa izaten jarraitzen du, eta azken bi hiruhilekoetan % 1,2ko hazkunde-tasa finkatu du.

Sektoreko enpleguak berriro ere gora egin du (+% 1,2).

Merkataritza

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

	(Prezio arruntak)			(Prezio konstanteak)		
	IV.2025	I.2026	II.2026	IV.2025	I.2026	II.2026
Merkataritza-salmentak guztira	**3,1**	**3,0**	**7,1**	**0,0**	**2,0**	**4,8**
Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa	4,5	8,2	5,2	3,0	6,6	0,7
Handizkako merkataritza	0,3	1,5	9,4	-2,2	0,9	6,6
Txikizkako merkataritza *	3,6	3,8	3,2	2,5	2,4	2,8
Elikadura	3,8	5,2	4,3	2,6	2,4	3,8
Gainerako produktuak	3,4	2,2	2,0	2,4	2,4	1,6
Landunen indizea	**1,4**	**1,2**	**1,2**	--	--	--

*Indize orokorra, zerbitzugunerik gabe Bizkaiko datuak, egutegi ondorioetatik zuzenduta, eta enplegu-datuak, urtaroko efektua kenduta. Uneko urteko behin-behineko datuak. 2021eko oinarria.
Iturria: Eustat

Bizkaiko merkataritza-gune handietako salmentei dagokienez, urteko hirugarren hiruhilekoko balantzea positiboa izan da prezio arruntetan (+% 2,5); prezio konstanteetan, berriz, negatiboa izan da (-% 1,4). Dinamismo hori bai elikagaien segmentuan (+% 3,1 eta -% 0,7, prezio arruntetan eta prezio konstanteetan, hurrenez hurren), bai gainerako produktuetan (+% 1,5 eta -% 2,4, prezio arruntetan eta konstanteetan, hurrenez hurren) hauteman da.

Bizkaiko merkataritza-gune handietako salmentek gora egin dute (+% 2,5 egungo prezioetan), baina enpleguak ez (-% 0,3).

Hala ere, merkataritza-gune handiei lotutako enpleguak apur bat egin du behera, eta azken bi hiruhilekoetan bilakaera bera izan du (-% 0,3 bietan). Emaitza horrek, beraz, 2021eko bigarren hiruhilekotik aurrera izaten ari zen joera positiboa eten du.

Merkataritza-gune handiak

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

	(Prezio arruntak)			(Prezio konstanteak)		
	I.26	II.26	III.26	I.26	II.26	III.26
Salmentak	**3,8**	**3,4**	**2,5**	**0,7**	**0,2**	**-1,4**
Elikadura	5,6	4,5	3,1	1,4	0,9	-0,7
Gainerako produktuak	0,3	1,3	1,5	-0,4	-1,1	-2,4
Landunen indizea	**0,1**	**-0,3**	**-0,3**	--	--	--

Bizkaiko datuak, egutegi ondorioetatik zuzenduta, eta enplegu-datuak, urtaroko efektua kenduta. 2021eko oinarria. Hiruhilekoko datua (hileko datuen batezbestekoa). Uneko urteko behin-behineko datuak
Iturria: Eustat

Urtarriletik irailera 11.841 ibilgailu berri matrikulatu dira (+% 2,2).

2026ko hirugarren hiruhilekoan, guztira 3.883 ibilgailu berri matrikulatu dira Bizkaian. Kopuru hori aurreko hiruhilekokoa baino nabarmen txikiagoa da (-% 9,5eko beherakada), baina 2025eko aldi berean erregistratutakoaren oso antzekoa (-% 0,3ko jaitsiera). Hilez hileko bilakaerak urte arteko hazkunde bakarra erakusten du, abuztuan gertatutakoa (+% 3,0). Hain zuzen ere, hilabete horretan izan da matrikulazio kopururik txikiena (955 ibilgailu). Beraz, uztailean eta irailean beherakada txikiak izan dira (-% 1,0 eta -% 1,4, hurrenez hurren). Gainera, bi hilabete horietan matrikulatutako ibilgailuen kopuruak oso antzekoak izan dira (1.481 eta 1.447, hurrenez hurren).

Urteko metatuan (urtarriletik irailera) 11.841 unitatera iritsi da; hau da, urte batetik bestera % 2,2ko hazkundea izan da. Horren oinarria ibilgailu partikularren segmentuak izan duen portaera ona da (+% 3,8), enpresen eta beste batzuen merkatuak, berriz, pixka bat behera egin baitu (-% 1,5). Gauzak horrela, matrikulazio berrien % 72,0 partikularren segmentuarekin bat dator.

Era berean, nabarmendu behar da ibilgailu alternatiboen matrikulazioak gora egin duela etengabe; izan ere, 2026ko hirugarren hiruhilekoan 3.346 unitate matrikulatu dira; hau da, ibilgailu berrien matrikulazioen % 86,2. Urteko metatuan, kopuru hori 10.000 unitatera hurbiltzen da (9.967), eta horrek % 84,2ko merkatu-sarrera dakar.

Hala ere, urte amaieran ibilgailu berrien matrikulazio bolumena 2025ean erregistratutakoa baino zertxobait handiagoa izatea aurrez ikusten da. Eskariak erosketaren unea atzeratzen jarraitzen du (modelo elektrifikatu berrien prezioa, motorizazio egokienari buruzko zalantzak eta abar); horrek ez ditu salmentak behar beste bultzatzen eta, aitzitik, ibilgailu-parke osoaren batez besteko adinean eragiten du. Bizkaian, batez besteko adin hori 15 urte ingurukoa da.

Ibilgailuen matrikulazioa

		III.2026				I-III.2026
	Kop.	Δ % Hiruhileko arteko	Δ % urte artean	2025	2026	Δ % urte artean
Guztira	**3.883**	**-9,5**	**-0,3**	**11.581**	**11.841**	**2,2**
Partikularrak	2.883	-8,5	0,8	8.219	8.528	3,8
Enpresak eta bestelakoak	1.000	-12,3	-3,4	3.362	3.313	-1,5

Bizkaiko datuak.
Iturria: Anfac

Bilboko merkataritza-sektoreari atxikitako afiliazioaren beherakada txikia

2026ko irailean, Hiriko merkataritza-sektorean afiliatutako 19.401 pertsona zeuden; horrek % 1,2ko beherakada dakar 2026ko ekaineko datuekin alderatuta (-245 pertsona). Txikizkako merkataritzan nabaritzen da gehien galera hori (-% 1,4 eta -223 pertsona); gainera, sektoreko afiliatuen zatirik handiena azpisektore horri dagokio (% 78,2); hau da, guztira 15.174 afiliatu. Handizkako merkataritzak, bere aldetik, beherakada txikiagoa izan du (-% 0,5 eta -22 pertsona), eta guztira 4.227 afiliatu ditu.

Jarduera-azpisektorearen araberako bilakaerari erreparatzen diogu, txikizkako merkataritzak azkenaldian ibilbide aldakorragoa izan du, afiliatuen kopuruan goranzko eta beheranzko mugimenduak txandakatuz. Handizkako merkataritzak, aldiz, afiliatuen kopuruan beheranzko joera arinari eutsi dio.

Merkataritza-sektorearen adierazleak. Bilbo

	03,2026	06,2026	09,2026	09.2026; Δ % hiruhileko artean	09.2026; Δ % urte artean
Afiliatuak[1]	**19.272**	**19.646**	**19.401**	**-1,2**	--
Handizkako merkataritza	4.333	4.249	4.227	-0,5	--
Txikizkako merkataritza	14.939	15.397	15.174	-1,4	--
Enpresak[2]	**2.204**	**2.196**	**2.191**	**-0,2**	--
Handizkako merkataritza	585	574	561	-2,3	--
Txikizkako merkataritza	1.619	1.622	1.630	0,5	--
Soldatapeko batez besteko enplegua[3]	***6,6***	***6,8***	***6,7***	--	--
Enplegu autonomoaren %	***24,4***	***23,9***	***24,0***	--	--

1. Guztizko enplegua (araubide guztiak). 2. Kotizazio-kontuak, araubide orokorreko afiliaziorako euskarria. 3. Araubide Orokorrean afiliatutakoak, kotizazio-kontuen guztizkoari dagokionez.
Iturria: GSDO

Sektoreko enpresa-egiturak zertxobait egin du behera

Enpresa-sareari dagokionez, Bilboko merkataritza-sektorea osatzen duten 2.191 enpresa daude. Kopuru hori aurreko hiruhilekoan erregistratutakoaren ia berdina da, nahiz eta zertxobait txikiagoa izan (-5 enpresa). Azpisektoreen araberako azterketak, ordea, zenbait ñabardura garrantzitsu erakusten ditu. Hala, egiaztatu da jaitsiera handizkako merkataritzan pilatu dela; izan ere, enpresa-sarea 13 unitatetan murriztu da, eta 561 enpresatan kokatu da. Txikizkako merkataritzak, aldiz, 8 enpresa gehiago ditu, eta guztira 1.630 enpresara iritsi da. Hala ere, sektoreko enpresen % 74,4 txikizkako merkataritzari dagokio.

Merkataritza-sektore osoaren enpresen batez besteko tamainari dagokionez, enpresa bakoitzeko 6,7 soldatapeko langilekoa da, eta azken hiruhilekoetan gorabehera txikiak baino ez ditu izan. Diagnostiko bera egin daiteke langile autonomoen enpleguari dagokionez ere: 2026ko irailean, % 24,0ko partaidetza izan du, eta proportzio hori oso antzekoa izan da aztertutako azken aldietan.

TURISMOA

Urteko hirugarren hiruhilekoan, Bilboko hotel-jarduerak berriro egin du gora bidaiarien kopuruan (+% 2,3 urte arteko tasan) eta gaualdietan (+% 2,8). Hala, uztaila eta iraila bitartean, 377.115 bidaiari eta 767.321 gaualdi zenbatu dira; bi kopuru horiek inoizko mailarik handienetara iritsi dira berriro.

Udako denboraldian, bidaiarien (+% 2,3) eta gaualdien (+% 2,8) kopuruak gora egin dute, eta inoizko mailarik altuenera iritsi dira

Hazkunde hori lortzen atzerritik etorritako bidaiariek baino ez dute lagundu; izan ere, haien sarrerak (+% 11,4) eta gaualdiak (+% 12,3) handitu dira. Estatuko bidaiarien kopuruak, aldiz, beheranzko joera izan du (-% 13,2 sarreretan eta -% 14,7 gaualdietan). Horren guztiaren ondorioz, nazioarteko segmentuak sarreren % 68,6 eta gaualdien % 70,8 hartu ditu. Era berean, batez besteko egonaldiak nazioarteko segmentuan baino ez du gora egin (2,10 egun); estatuko bidaiarien egonaldia, berriz, 2 egunetik beherakoa izan da (1,89 egun).

Atzerriko segmentuaren bilakaera (+% 11,4 eta +% 12,3 bidaiarien eta gaualdien kopuruetan) izan da hobekuntza bultzatu duena

Hiru hiruhilekoetako datu metatuak 963.577 sarrera eta 1.875.782 gaualdi izan dira guztira; horrek urte arteko % 2,2ko eta % 2,5eko igoerak ekarri ditu, hurrenez hurren.. Beste behin, emaitza hori nazioarteko segmentuaren dinamismoan oinarritu da (+% 8,6 eta +% 9,3 bidaiarien eta gaualdien kopuruetan); horri esker, estatuko segmentuaren beherakada konpentsatu da (-% 5,7 eta -% 7,4 bidaiarien eta gaualdien kopuruetan). Hala, nazioarteko segmentuak Hiriak jasotako bidaiarien % 58,6 eta gaualdien % 62,9 hartzen ditu dagoeneko.

... eta iraileko balantze metatuak % 2,2ko eta % 2,5eko hazkundeak erakusten ditu (sarrerak eta gaualdiak).

Turismoa

	III.2026			I-III.2026	
	Kop.	Δ % hiruhileko artekoa	Δ % urte artean	Kop.	Δ % urte artean
Ostatu-gauak	**767.321**	**15,9**	**2,8**	**1.875.78**	**2,5**
3 izar eta gehiagoko hotelak	564.347	17,3	0,6	1.366.18	-0,4
3 izar baino gutxiagoko hotelak eta ostatuak	202.974	12,1	9,5	509.59	10,9
Estatukoak	223.991	-2,6	-14,7	696.48	-7,4
Atzerritarrak	543.330	25,7	12,3	1.179.30	9,3
Bidaiariak	**377.115**	**9,1**	**2,3**	**963.57**	**2,2**
Estatukoak	118.291	-13,6	-13,2	398.89	-5,7
Atzerritarrak	258.824	24,1	11,4	564.68	8,6
Egonaldia, batez beste	**2,03**	--	--	**1,9**	--

Batez besteko egonaldia: gauak/bidaiariak (egunak). Ehuneko puntuen aldakuntza.
Iturria: Eustat

Hilabete bakoitzeko datuei erreparatzen badiegu, ohikoa denez, uztailean eta abuztuan erregistratu da hotel-jarduerarik handiena (128.851 eta 134.138 sarrera, hurrenez hurren), urte arteko % 4,8ko eta % 2,6ko hazkundeekin, hurrenez hurren. Irailean, berriz, 114.126 sarrera izan dira, urte arteko beherakada txikia izan ondoren (-% 0,7). Gaualdiek antzeko bilakaera izan dute: uztailean 256.479 gaualdi zenbatu dira (+% 5,9), abuztuan 278.564 (+% 1,7) eta irailean 232.278; azken hilabete horretan bilakaera egonkorragoa izan da, baina positiboa (+% 0,9).

Bidaiariak eta gaualdiak Bilboko hotel-establezimenduetan



Iturria: Eustat

Erreferentziazko hiriburuen bilakaera kontuan hartuta, Bilbo tarteko posizioan kokatzen da gaualdien bilakaerari dagokionez (+% 2,8 urte artekoan). Hala, Hiriak euskal hiriburuen multzoak baino emaitza hobea izan du (G-3; +% 0,7), baina Estatuko hiriburuen batez besteko hazkundearen azpitik kokatu da
(G-5; +% 3,3). Estatuko hiriburuen artean, Valentziaren bilakaera ona nabarmendu behar da (+% 6,0), nahiz eta, oro har, hazkundeak izan diren (Zaragozako % 1,9aren eta Sevillako % 3,2aren arteko igoerak erregistratu dira).

Euskal hiriburuei dagokienez, Gasteizek izan du taldeko beherakada bakarra (-% 6,6); Iruñeak eta Donostiak, berriz, oso antzeko bilakaera izan dute (+% 4,5 eta +% 4,4, hurrenez hurren).

Bilbo tarteko posizioan dago erreferentziazko gainerako hiriburuekin alderatuta.

Benchmarkinga. Hoteletako ostatu-gauak

	I.2026	II.2026	III.2026	Δ % Hiruhileko arteko	Δ % urte artean
Madril	4.880.118	5.778.976	5.464.290	-5,4	2,7
Bartzelona	4.818.527	5.834.281	6.298.608	8,0	2,6
Valentzia	1.135.965	1.477.400	1.539.459	4,2	6,0
Sevilla	1.581.095	1.793.975	1.633.586	-8,9	3,2
Zaragoza	444.380	528.007	529.279	0,2	1,9
G-5en batezbestekoa (hiriak)	--	--	--	**-0,4**	**3,3**
BILBO	**446.192**	**662.269**	**767.321**	**15,9**	**2,8**
Gasteiz	180.971	219.754	240.955	9,6	-6,6
Donostia	352.939	606.563	709.810	17,0	4,4
Iruñea	133.618	195.481	219.765	12,4	4,5
G-3ren batezbestekoa (hiriak)	--	--	--	**13,0**	**0,7**
G-9ren batezbestekoa (hiriak)	--	--	--	**5,9**	**2,4**

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Gasteiz, Donostia eta Iruñea G-9: G-5, G-3 eta Bilbo.
Iturria: Eustat eta INE

GARRAIOA

Aireko garraioa

Udako jarduerak nabarmen egin du gora Loiun (+% 15,6 urte arteko tasan).

Loiuko aireportuak 2.364.446 bidaiari izan ditu urteko hirugarren hiruhilekoan. Kopuru hori 2025eko datuen (2.046.199 bidaiari) oso gainetik dago, eta beste behin ere marka historiko berria ezarri du. Hala, 2025eko hirugarren hiruhilekoan zenbatutakoak baino 318.247 bidaiari gehiago zenbatu dira (+% 15,6), eta horrek aireko zirkulazioa sendotu du urte-tarte honetan, 2 milioitik oso gora. Hobekuntza horren atzean hainbat faktore daude, hala nola ibilbide berriak etengabe gehitzea (68 helmuga udako denboraldian), aire-konpainia berriak erakartzea eta helmuga ezagunenetako hegaldi-maiztasunak indartzea.

Iraila arte, ia 6 milioi bidaiari garraiatu dira.

Hala, urte osoko datu metatuari dagokionez (irailera arte), aireportuak 6 milioi bidaiarien langa gainditzear egon da (5.925.796); horrek urte arteko % 10,9ko hazkundea dakar. Jardueraren gorakada hori nazioarteko segmentuaren bilakaera onak bultzatu du batez ere (+% 20,6 urte arteko tasa); estatuko segmentuak, aldiz, askoz ere dinamismo txikiagoa izan du (+% 3,0). Horren ondorioz, merkatua orekatzeko joera hartzen ari da (% 51,1 eta % 48,9, estatuko eta nazioarteko zirkulazioa, hurrenez hurren).

Hala ere, urteko datu metatuetan 43.554 hegaldi egin dira, 2025eko aldi berean baino % 5,6 gehiago. Bilakaera hori bidaiarien mugimenduan izandako hazkundea baino txikiagoa da; horrek adieraz dezake hegaldien okupazio-maila handiagoa izan dela edo edukiera handiagoko hegazkinak erabili direla.

Aireko garraioa

	III.2026			I-III. 2026	
	Kop.	Δ % hiruhileko artean	Δ % urte artean	Kop.	Δ % urte artean
Bidaiariak (kop.)	**2.364.446**	**9,1**	**15,6**	**5.925.796**	**10,9**
Hegaldi komertzialak	2.362.053	9,2	15,6	5.917.284	10,9
Espainiakoak	1.105.178	-0,3	5,6	3.023.647	3,0
Nazioartekoak	1.256.875	19,1	26,1	2.893.637	20,6
Hegaldiak (kop.)	**16.874**	**5,2**	**12,3**	**43.554**	**5,6**

Behin-behineko datuak
Iturria: Aena

Hilabetez hilabeteko azterketak aireportuko jardueraren bilakaera ona berresten du. Hala, estatuko segmentuak urte arteko % 6,6ko, % 10,6ko eta % 0,1eko hazkundeak izan dituen bitartean uztailean, abuztuan eta irailean, hurrenez hurren, nazioarteko segmentuak gorakada nabarmenak izan ditu: % 27 ingurukoak uztailean eta abuztuan, eta % 23 ingurukoa irailean.

Bidaiariak Loiuko aireportuan, hileko bilakaera



Jatorriaren araberako banakapena bidaiari komertzialei dagokie. Behin-behineko datuak
Iturria: Aena

Era berean, erreferentziazko aireportuek, oro har, garraiaturiko bidaiarien kopuruaren gorakada izan dute. Estatu mailan, Zaragozak baino ez du trafikoaren beherakada izan (-% 11,6 urte arteko tasan). Valentzia (+% 8,9) eta Sevilla (+% 8,4) izan dira bilakaera onena izan duten aireportuak, Madrilgo (+% 5,4) eta Bartzelonako (+% 4,4) hazkundeak gaindituz. Euskal aireportuen artean, Gasteizen dinamismoa nabarmendu behar da (+% 25,4); Donostian ere bidaiarien kopuruak gora egin du (+% 5,1), eta Iruñean, aldiz, behera (-% 2,0). Horren guztiaren ondorioz, euskal aireportuen multzoak (G-3) Estatuko aireportuek (G-5) baino bilakaera hobea izan du (+% 8,0); azken horiek, guztira, hazkunde apalagoa izan dute (+% 3,1).

Benchmarkinga. Bidaiariak aireportuetan

	II.2026	III.2026	Δ % urte artean	Δ % hiruhileko artean	metatua Δ % urte artean
Madril	17.871.322	19.325.298	5,4	8,1	4,7
Bartzelona	16.077.433	17.221.752	4,4	7,1	4,4
Valentzia	3.503.714	3.686.100	8,9	5,2	8,3
Sevilla	2.815.339	2.554.733	8,4	-9,3	9,3
Zaragoza	183.737	184.215	-11,6	0,3	-5,6
G-5en metatua	--	--	**3,1**	**2,3**	**4,2**
BILBO	**2.166.655**	**2.364.446**	**15,6**	**9,1**	**10,9**
Gasteiz	122.960	101.841	25,4	-17,2	27,7
Donostia	139.071	144.910	5,1	4,2	2,0
Iruñea	64.792	58.043	-2,0	-10,4	4,5
G-3ren metatua	--	--	**8,0**	**-7,8**	**11,4**
G-9ren metatua	--	--	**6,1**	**-0,3**	**7,4**

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Gasteiz, Donostia eta Iruñea G-9: G-5, G-3 eta Bilbo.
b: behin-behinekoa.
Iturria: Aena

Itsas garraioa

Bilboko Portuko jarduerak behera egin du (-% 4,8 urte arteko tasan)...

Bilboko Portuak 7.971 mila tona garraiatu ditu urteko hirugarren hiruhilekoan, hau da, urte batetik besterako jaitsiera % 4,8koa izan da. Beherakada hori bereziki nabarmena izan da uztailean (-% 10,4); irailean, berriz, atzerakada apalagoa izan da (-% 4,8), eta abuztuan bilakaera hobea izan da (+% 1,0). Nolanahi ere, hiruhilekoko jardueraren narriadura horretan eragina izan dute hiru partida nagusiek, baina neurri desberdinean. Hala, solteko gai solidoek urte arteko beherakada nabarmena izan dute (-% 19,6); ondoren, merkantzia orokorrarena azaltzen da, % 6,7ko jaitsierarekin, eta, azkenik, solteko gai likidoena, jarduera % 1,2 murriztu baita. Aldiz, edukiontzien kopuruak eta edukiontzietan garraiatutako merkantzien bolumenak gora egin dute (+% 6,8 eta +% 3,4, hurrenez hurren); kudeatutako itsasontzien kopuruak, ordea, behera egin du (-% 8,3).

... nahiz eta urteko behin-behineko balantzea positiboa izan (+% 6,3).

Hala ere, hirugarren hiruhilekoan urte arteko beherakada izan den arren, urteko balantzea (urtarriletik irailera) positiboa da. Hala, 25.311 mila tona garraiatu dira, 2025eko aldi berean baino % 6,3 gehiago. Hazkunde hori solteko salgai likidoen bilakaera onari esker lortu da (+% 14,9); izan ere, horrek konpentsatu egin ditu solteko gai solidoen (-% 14,4) eta merkantzia orokorraren (-% 2,4) beherakadak. Beraz, joera horri eutsiz gero, urte amaierako balantzea positiboa izan liteke, solteko gai likidoen bultzadari esker; izan ere, horiek dute portuko jardueran partaidetzarik handiena.

Salgaien itsas garraioa



Iturria: Estatuko portuak

EKONOMIA PRODUKTIBOA

Barne Produktu Gordina

Bizkaiko BPGa urte arteko % 2,3 hazi da 2026ko bigarren hiruhilekoan, eta % 2tik gorako hazkunde-ibilbideari eutsi dio. Hala, Bizkaiko ekonomiak zortzi hiruhileko jarraian egin du gora urte arteko tasan, % 2 eta % 2,5 arteko hazkunde-tartean.

Bizkaiko ekonomia % 2,3 hazi zen

Enpleguak, bere aldetik, goranzko joerari eutsi dio, eta lanaldi osoko lanpostuen baliokidetzan (LLOB) 510.376 lanpostura iritsi da. Horrek urte arteko % 1,3ko hazkundea dakar (6.553 lanpostu gehiago). Hortaz, urteko lehen seihilekoko balantzeak, bigarren urtez jarraian, milioi bat lanposturen langa gainditu du lanaldi osoko baliokidetzan (1.005.478 lanpostu 2025ean, eta 1.018.422 2026an). Joera horri eutsiz gero, ekitaldia inoizko mailarik handienean amaituko litzateke.

Milioi erdi lanpostuko langa nabarmen handitu da LOBen

Bizkaiko BPGd-a



Iturria: Eustat (Kontu ekonomikoak eta hiruhilekoko kontuak). Urtarokotasun- eta egutegi-efektuetatik zuzendutako datuak, bolumen kateatuko indizean eta 2022ko oinarrian.

Industria

Urteko hirugarren hiruhilekoan (uztaila-abuztua, behin-behineko datua), Bizkaiko industria-ekoizpenak atzera egin du (-% 3,3 urte arteko tasan), baina urtarriletik abuztura bitarteko hazkunde metatuari eustea lortu du, positiboa izan baita (+% 0,6). Urteko hirugarren hiruhilekoari buruzko azken datuek erakusten dutenez, manufaktura-jarduerak (-% 4,2) eta erauzketa-industriei dagokien jarduerak (-% 9,3) behera egin dute. Aitzitik, energiaren, gasaren eta lurrunaren sektoreak (+% 7,7) eta uraren sektoreak (+% 4,8) hobekuntza nabarmena izan dute.

Produkzio industriala uzkurtu egin da (urte arteko -% 3,3), baina urteko metatuan (abuztura arte) oraindik hazten ari da (+% 0,6).

Industria

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

	I.2026	II.2026	III.2026p	2025 (urtarrila-abuztua)	2026 (urtarrila-abuztua)
Produkzio-indizea	**1,4**	**1,8**	**-3,3**	**-0,8**	**0,6**
Manufakturen industria	1,7	2,8	-4,2	-1,6	0,9
Erauzketa-industriak	-21,7	2,5	-9,3	0,4	-9,5
Energia, gasa eta lurruna	-2,7	-13,6	7,7	3,3	-4,5
Ura	0,1	-2,2	4,8	0,0	0,5

Bizkaiko datuak, egutegiaren ondorioak zuzenduta. 2021eko oinarria. Erreferentzia-aldiko agregazio-indizearen urte arteko aldakuntza. 2026ko hirugarren hiruhilekoko datuak behin-behinekoak dira, uztaila-abuztuari dagozkionak.
Iturria: Eustat

Merkatu-zerbitzua

2026ko bigarren hiruhilekoan, merkatu-zerbitzuen salmentek berriro egin dute gora (+% 4,0 eta +% 2,3, prezio arruntetan eta prezio konstanteetan, hurrenez hurren), eta horrela, hobekuntza-ibilbide luzea sendotu dute. Informazioaren eta komunikazioen adarra izan ezik, hiruhilekoa emaitza negatiboekin itxi baitu (-% 1,1 eta -% 3,3), gainerako jarduerek salmentak hobetu dituzte, bai prezio arruntetan, bai prezio konstanteetan. Garraioaren eta biltegiratzearen jarduerak (+% 4,9 eta +% 5,3) eta jarduera profesional, zientifiko eta teknikoek (+% 6,2 eta +% 3,6) izan dute bilakaerarik onena. Ostalaritza (+% 5,3 eta +% 1,9) eta administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak (+% 2,9 eta +% 1,1), berriz, zertxobait dinamismo txikiagokoak izan dira. Enpleguak, ordea, zertxobait behera egin du (-% 0,1), eta azken hiruhilekoetako joera positiboa eten du.

Merkatuko zerbitzuen salmentek goranzko joerari eutsi diote (+% 4,0 eta +% 2,3, prezio arruntetan eta konstanteetan, hurrenez hurren), baina enpleguak behera egin du (-% 0,1).

Merkatu-zerbitzua

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

	(Prezio arruntak)			(Prezio konstanteak)		
	IV.2025	I.2026	II.2026	IV.2025	I.2026	II.2026
Salmentak guztira	**4,4**	**4,5**	**4,0**	**1,5**	**1,5**	**2,3**
Garraioa eta biltegiratzea	3,7	2,1	4,9	0,0	-1,2	5,3
Ostalaritza	5,2	7,2	5,3	1,8	3,7	1,9
Informazioa eta komunikazioak	-0,9	1,9	-1,1	-3,7	-0,1	-3,3
Jarduera profesional zientifikoak eta teknikoak	8,7	8,0	6,2	6,4	5,1	3,6
Administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak	3,3	3,0	2,9	1,1	-0,2	1,1
Landunen indizea	**1,1**	**1,1**	**-0,1**	--	--	--

Bizkaiko datuak (2021eko oinarria); egutegiaren, enpleguaren (urtaro efektua kenduta) eta behin-behinekoen ondorioak zuzenduta uneko urterako.
Iturria: Eustat

Kanpo-merkataritza

Bizkaiko enpresen esportazioek gora egin dute (bai bolumenean, bai balioan)

Kanpo-jarduerari dagokionez, uztaileko eta abuztuko bi hilabeteetan, Bizkaiko enpresek 1.083,8 mila tona esportatu zituzten guztira; horren balio ekonomikoa 1.936,1 milioi eurokoa izan da. Kopuru horiek urte arteko % 16,0ko eta % 27,9ko gorakada ekarri dute, bolumenean eta balioan, hurrenez hurren. Inportazioei dagokienez, bolumena 2.600,7 mila tonakoa izan da, eta sortutako balio ekonomikoa 2.497,2 milioi eurora iritsi da. Emaitza horrek kontrako joerak erakusten ditu: inportazioen bolumena murriztu egin da (-% 8,6), baina haien balioa handitu egin da (+% 11,0).

Energiaren eragina kenduta, esportazio ez-energetikoak 565,3 mila tonara eta 1.562,4 milioi eurora iritsi dira, bolumenean behera egin ondoren (-% 9,2) eta balioan gora egin ondoren (+% 12,8). Inportazio ez-energetikoei dagokienez, guztira 765,5 mila tona izan dira, urte arteko uzkurdura nabarmena izan ondoren (-% 21,8). Joera hori, ordea, ez da balio ekonomikora hedatu; izan ere, balioa 1.427,2 milioi eurora iritsi da, zertxobait gora egin ondoren (+% 3,2).

Horren guztiaren ondorioz, esportatutako tona bakoitzaren batez besteko prezioa (guztira) 1.786 eurokoa izan da; inportatutako tona bakoitzarena, berriz, 960 eurokoa. Bestalde, esportatutako tona ez-energetikoaren batez besteko prezioa 2.764 eurokoa da, eta inportatutako tona ez-energetikoa 1.864 euro artekoa.

Kanpo-merkataritza; moneta-balioa eta bolumena.

					Urte arteko Δ %	
	IV.2025	I.2026	II.2026	III.2026[1]	II.2026	III.2026[2]
Bolumena (mila tona)						
Esportazioak, guztira	**1.690,2**	**1.515,9**	**1.737,8**	**1.083,8**	**-0,7**	**16,0**
Esportazio ez-energetikoak	973,1	947,9	1.086,1	565,3	8,1	-9,2
Inportazioak, guztira	**4.491,8**	**4.587,7**	**5.031,6**	**2.600,7**	**32,3**	**-8,6**
Inportazio ez-energetikoak	1.374,7	1.490,5	1.686,6	765,5	16,0	-21,8
Balioa (milioi eurotan)						
Esportazioak, guztira	**2.747,6**	**2.912,7**	**3.243,9**	**1.936,1**	**14,0**	**27,9**
Esportazio ez-energetikoak	2.417,0	2.571,1	2.741,5	1.562,4	12,2	12,8
Inportazioak, guztira	**3.381,0**	**3.759,4**	**5.074,1**	**2.497,2**	**44,7**	**11,0**
Inportazio ez-energetikoak	2.011,0	2.181,9	2.677,4	1.427,2	19,9	3,2

Bizkaiko datuak. 1. Uztaileko eta abuztuko behin-behineko datua. 2. Iazko uztaila-abuztuarekin alderatuta
Iturria: Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa

Uztaileko eta abuztuko bi hilabeteetan, Bizkaiko kanpo-merkataritzaren saldo defizitarioa izan da (-561,1 milioi euro). Hala ere, energiaren osagaia kenduta, superabitario bihurtzen da (+135,2 milioi euro). Hala, eta ondorengo grafikoetan ikus daitekeen bezala, Lurraldeko jarduera ez-energetikoak esportatutako eta inportatutako bolumenaren % 52,2 eta % 29,4 hartzen ditu, hurrenez hurren; ehuneko horiek, ordea, nabarmen txikiagoak dira diru-balioari dagokionez duen ekarpenarekin alderatuta (% 80,7 eta % 57,2, hurrenez hurren).

Esportazio eta inportazio ez-energetikoen ratioa



Bizkaiko datuak. Uztaileko eta abuztuko behin-behineko datua.
Iturria: Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa

Era berean, urteko bigarren hiruhilekoan (eskuragarri dagoen azken datua), Bizkaiko esportazioen eta BPGaren arteko ratioa % 23,6koa izan da. Horrek hobekuntza-joera sendotu du, 2025eko hirugarren hiruhilekoan serieko baliorik txikiena (% 18,7) lortu ondoren.

Esportazioen ratioa BPGd-rekin alderatuta (%)



Bizkaiko datuak
Iturria: Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa eta Hiruhilekoetako kontuak (Eustat, 2022ko oinarria)

ENPRESA-JARDUERA

Sozietate berriak

2026ko hirugarren hiruhilekoa Bilbon sortutako 226 sozietate berrirekin itxi da, aurreko hiruhilekoan baino % 15,4 gutxiagorekin. Hiruhileko arteko beherakada hori urtez urte errepikatzen da (-% 24,7 2023an, -% 9,5 2024an eta -% 13,0 2025ean), eta agerian uzten du sozietate berrien sorrerak urtarokotasun nabarmena duela.

Aldiz, urtetik urterako tasari dagokionez, bilakaera askoz ere hobea izan da (+% 12,4), eta aurreko ekitaldiko aldi berean baino dinamismo handiagoa antzeman da. Hala, 2026ko hirugarren hiruhilekoa azken urteetako emaitzarik onena izan da sozietate berrien sorrerari dagokionez (162 2023an, 200 2024an eta 201 2025ean).

Merkataritza-sozietate berriak



Iturria: Merkataritza Erregistroa

Merkataritza-sozietate berriak

	IV. 2025	I. 2026	II. 2026	III. 2026	Δ % Hiruhileko arteko	Δ % urte artean
Sozietate berriak	**292**	**250**	**267**	**226**	**-15,4**	**12,4**
Lehenengo Sektorea	0	1	0	1	-	0,0
Industria eta energia	20	8	10	6	-40,0	100,0
Eraikuntza	35	39	18	16	-11,1	-42,9
Zerbitzuak	237	202	239	203	-15,1	20,1

Iturria: Merkataritza Erregistroa

2026ko hirugarren hiruhilekoan, sektore guztietan erregistratu da sozietate berrien kopuruaren gorakada, nahiz eta neurri oso desberdinean izan. Zerbitzuen sektoreak sortutako sozietateen kopururik handiena biltzen du, alde handiz (203); hau da, sortutako sozietate guztien ia % 90. Jarduera-adarren arabera, finantza- eta aseguru-jarduerak (39), jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak (31), ostalaritza (31) eta merkataritza eta konponketa (26) nabarmendu dira dinamismoagatik. Lau jarduera horien artean, 127 sozietate berri sortu dira (% 56,2 guztizkoaren aldean).

Sozietate gehien sortu dituzten jarduerak (2026ko III. hiruhilekoan)

Finantza- eta aseguru-jarduerak	39
Jarduera profesional, zientifikoak eta teknikoak	31
Ostalaritza	31
Merkataritza eta konponketak	26

Iturria: Merkataritza Erregistroa

Desegindako sozietateak

Urteko hirugarren hiruhilekoan, 59 sozietate desegin dira Hirian, 2025eko hirugarren hiruhilekoan baino % 18,1 gutxiago. Horrela, azken urteetan erregistratutako kopururik txikienetako bat izan da.

59 sozietate desegin dira, azken urteetako kopururik txikienetako bat.

Horrenbestez, saldo garbia (sortutako sozietateak ken desegindakoak) positiboa da (167 sozietate). Sektoreka, zerbitzuetan 156 sozietateko saldo garbi positiboa izan da; eraikuntzan, berriz, 11 sozietatekoa, eta, azkenik, lehen sektorean, sozietate batekoa. Industria eta energiaren sektoreak bakarrik izan dute saldo negatiboa, baina oso txikia (-1).

Hala ere, sozietate gehien desegin dituzten jarduerak merkataritza eta konponketa (10), higiezinen jarduerak (9), administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak (8) eta eraikuntza (5) izan dira.

Desegindako sozietateak

	IV. 2025	I. 2026	II. 2026	III. 2026	Δ % Hiruhileko arteko	Δ % urte artean
Desegindako sozietateak	**103**	**133**	**73**	**59**	**-19,2**	**-18,1**
Lehenengo Sektorea	1	1	0	0	-	-100,0
Industria eta energia	1	15	8	7	-12,5	-22,2
Eraikuntza	16	16	8	5	-37,5	-44,4
Zerbitzuak	85	101	57	47	-17,5	-11,3

Iturria: Merkataritza Erregistroa

Sozietate gehien desegin dituzten jarduerak (2026ko III. hiruhilekoan)

Merkataritza eta konponketak	10
Higiezinen jarduerak	9
Administrazio jarduerak eta laguntza zerbitzuetakoak	8
Eraikuntza	5

Iturria: Merkataritza Erregistroa

III. hiruhilekoa 2026

	Azken datua	Adierazleak Δ Urte artean (%)	Aldia
LAN MERKATUA			
Biztanleria aktiboa (milaka)**	177,2	0,8	III. hiruhilekoa
Biztanleria okupatua (milaka)**	163,1	-0,9	III. hiruhilekoa
Biztanleria langabetua (milaka)**	14,1	25,9	III. hiruhilekoa
Langabezia-tasa (%)**	7,97	1,6	III. hiruhilekoa
Langabe erregistratuak (pertsona-kop.)**	21.525	2,9	Iraila
Afiliatuak (kop.)	200.988	1,9	Iraila
Erregistratutako kontratuak (kop.)**	32.674	3,0	III. hiruhilekoa
MERKATARITZA			
Afiliatuak	19.401	--	Iraila
Kontsumo-prezioak (indizea)***	105,5	5,3	Iraila
TURISMOA			
Ostatu-gauak (kop.)	767.321	2,8	III. hiruhilekoa
Bidaiariak (kop.)	377.115	2,3	III. hiruhilekoa
Batez besteko egonaldia (ostatu- gauak/bidaiariak)	2,03	0,01	III. hiruhilekoa
GARRAIOA			
Salgaien itsas garraioa (mila tona)	7.971,2	-4,8	III. hiruhilekoa
Bidaiarien aireko garraioa (kop.)	2.364,4	15,6	III. hiruhilekoa
ENPRESA JARDUERA			
Industria-produkzioa (indizea)**	174,1	-3,3	uztaila-abuztua
Merkataritza-sozietate berriak (kop.)	226	12,4	III. hiruhilekoa
Desegindako sozietateak (kop.)	59	-18,1	III. hiruhilekoa

* Ehuneko puntuak.
** Bilboko egoiliarrak.
*** Bizkaiari dagokion adierazlea. KPIren bilakaera, erreferentzia-aldiko agregazio-indizean oinarrituta. 2021eko oinarria
Iturria: Geuk egindakoa, erakunde hauen datuetan oinarrituta: Eustat, SEPE, Lanbide, Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzako Ministerioa, INE, Estatuko Portuak, Aena eta Merkataritza Erregistroa.